

Denporearen mugak.

Denporeak ahazten laguntzen dauala dinoe... baina, gitxienez orain arte, inoiz be ez dau arazoak konpontzen lagundu. Denporea irabaztea, egoera jakin baten denpora apur bat gehiago egoteko helburu bakarragaz, arazo bati aurre egiteko gaitasunik edo, txarrago dana, ezelango asmorik ez daukien eta jokabide horretan mantentzeagaz konformetan diran pertsonen gauzea da. Hori dala eta, batzuek ping-pong partidea izango balitz moduan ikusten dabe politikea, helburu bakar bategaz: pelotea ahalik eta denpora gehien egon daitela jokoan, protagonismoa eta garrantzia bilatzen, zentzubako partida baten titularra izateagaitik bakarrik. Zorionez, emoten dau Euskadin gauzak aldatzen dabilzala (edo ez?). Euskadiko herritarrak aspertu egin dira peloteari emon baino beste ezer egiten ez dabenakaz. Euskal gizartearentzat bakea, letra handiz idatzitako bakea, ondasuna da, berez. Jokatzeko garaia da. Jokutzen gabilz eta gaur, 2006ko zemendian, inoiz baino hurrago gagoz bakea lortzetik. Bai eta guztiori jokatzeko aukerea emongo deuskun akordio politikoa lortzetik be... oinarrizko eta gitxieneko arau batzukaz mugatuko deuskun arren. Horixe da, zalantza barik, demokraziaren oinarri handietako bat. Partida aurremilitar hori, bakerako eta normalizazino politikorako oinarriak ezarri behar dauzana, ezin da askoz gehiago luzatu, ez eta behar be.

Los límites del tiempo.

Dicen que el tiempo ayuda a olvidar... pero nunca, al menos hasta ahora, ha ayudado a resolver problema alguno. Ganar tiempo, con el único objetivo de permanecer un poco más en una determinada situación, responde simplemente a los intereses de quienes no tienen capacidad, o peor aun, no tienen ninguna intención de afrontar un problema y se conforman con mantener una posición. Por eso, hay quienes ven la política como una partida de ping pong con un único objetivo: que la pelota esté cuanto más tiempo en juego buscando un protagonismo y una relevancia por el mero hecho de ser el titular en un partido absurdo. Por suerte las cosas en Euskadi parece -¿o no?- que están cambiando. Los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi se han hartado de quienes simplemente se dedican a dar raquetazos a la pelota. Para la sociedad vasca la paz, la paz con mayúsculas, es un bien en sí mismo. Es hora de jugar. Estamos jugando y hoy, en noviembre de 2006, estamos más cerca que nunca en nuestra historia reciente de conseguir la paz. Y de lograr un acuerdo político que nos permita jugar a todos... pero que también nos constriña con unas normas básicas y mínimas. Es éste, sin duda, uno de los grandes pilares de la democracia. Este partido premilitar, el que debe sentar las bases para la paz y para normalización política, no puede ni debe alargarse mucho más en el tiempo.